


# Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

11/9/2 | 348

- Manex Izagirre eta May Gorostiaga
- Mintzalaguna egitasmoan izena emateko aukera
- III. EH Eguna, Anaitasunarekin jarraituz
- Koxxk!: Jateko gogoia
- Galtzakomik



## Aurten bai!

Irailaren 11n Kontxako 2. Jardunaldiaren lehia

Nerea Lentzeria

# Aukera guztiak azpiko arropa, bata eta pijametan

Etxe onenekin egiten dugu lan  
Emakumezkoak: Promise, Lohe, Anita, Leonisa..  
Gizonezkoak: Levis, Pierre Cardin, Guilio...

Errementari kalea - Tolosa  
Tel: 943 671 630

**SUPER EKO** *Oinezkoen eremua*  
*Erosketak etxera eramateko zerbitzua*

**Produktu ekologikoetan, aukera zabala**

Zumalakarregi, 4  
943 65 09 01  
Tolosa

**NUTRIZIO AHOLKULARITZA**

**AMAIA ETXETXIPIA BIOLOGA**

**DIETA PERTSONALIZATUAK**  
OBESITATEA  
NUTRIZIO BERREZIKETA  
ARIKETA FISIKOA  
HELDUAK ETA HAURRAK

KONDEKO ALDAPA,  
5 B - 2ª ESKUBIA  
20400 TOLOSA

ALDEZ AURREKO  
HITZORDUA  
679 934 888

**TEKNOLOGIA EZ DA AMESTEKO EDUKITZEKO BAIZIK**

**CITROËN GRAND C4 PICASSO FIRST VTI 14.940€\*TİK**

AIRE EGOKITUA, ORDENAGAILUA, BAS, ATZERAKO ISPIUA ETA ASK. BITEIRA ALDAPATSUE TARRAKO LAGUNTZA, DIREKZIO-SISTEMA LAGUNGARRIA, ABADURA ERREGULAZIOA, ISPIU ELKTRIKO TERMIKOA, ANGULU HANDEKO HAZITAKO FANORAMIKOA, ANAKITZKO FRENO ELKTRIKOIA, 6 BOLTORAGELUN IRABIA CD MP3.

ETA GANERA,  
**CITROËN C3 PICASSO VTI 10.600€\*TİK**

KONTSUMORISKOIA (l/100 Km) / CO2 EMISIOA (g/Km):  
GRAND PICASSO: 5,0-7,0 / 130-177, C3 PICASSO: 4,6-6,4 / 119-149

\*PVV garrantzia Grand C4 Picasso VTI 120 FIVE, C3 Picasso VTI 95 AIRE-ten (argi), garrantzia eta ibilgailuak hurrengo ibilbide funtzionario eta leku partikularretarako. Beharrezko ez garrantziak. Modeloak Grand C4 Picasso Exclusive Plus eta C3 Picasso Exclusive Park Exclusive.

**IROVI, S.A. CITROËN KONTZESIONARIO OFIZIALA. INDUSTRIAGUNEA Z/G TEL: 943 651 842 ANOETA/TOLOSA**

non<sub>er</sub>



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.  
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea, 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 655 004  
Faxa: 943 654 983  
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com  
Webgunea: www.galtzaundi.com  
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.  
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegietxarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Andoni Egia, Ibon Artola, Unai Igartua, Virginia Etxarri, Jone Otxoa-Aizpurua, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxiopia, Jone Gorostazu, Iosu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague  
Banatzaileak: Olatz Garmendia, Juankar Arregi  
Zuzentzailea: Nora Olano  
Maketazioa: Zigor Agirrezabala.  
Diseinua: Zigor Agirrezabala  
Azala: Galtzaundi  
Inprimategia: Antza.  
Tirada: 5.000 ale  
Lege gordailua: SS-906/91  
Frankeo Itundua: 37/94

GALTAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri haueko denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketa, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**TOLOSAKO UDALA**

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

**EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntz Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundutako argitalpena



Erreportaia:  
Aurten bai!

Tolosaldea Arraun Klubeko arraunlariak denboraldi bikaina idazten ari dira; lehiatutako estropada gehienak eurenak bihurtu dituzte, Oriokoa eta Espainiako txapelketa baino ez dira euren palmaresetik at geratu. Honenbestez, Gipuzkoako Liga ere dagoeneko eurena da. 'Esperantza' ontziko emakumeek orain ordea Kontxako Banderan begiak, indarrak eta itxaropena bera jarri dituzte.

8-11. orrialdeak

Jose Luis Rebordinos (Errenteria, 1961) Gazteluko Martintxo baserrian bizi da eta bertan Zinemaldiaren prestaketa zurruntzik babesa aurkitzen du.

Jose Luis Rebordinos

14-16. orrialdeak

6	Irtziaren leihoa: Manex Izagirre eta May Gorostiaga	4-5
6	Normalizazioa: Mintzalaguna egitasmoan izena emateko aukera	6-7
6	Eskualdeko albistea: III. EH Eguna, Anaitasunarekin jarraituz	12-13
6	Koxkl: Jateko gogoa	17
6	Kultura: Galtzakomik	18-19



Manex Izagirre  
Gaztea

“Kanta ezak librean, nahi duan doinu eta neurrian”. Nahi nuenaz idazteko eskatu zidatenean, bertsolariak librean kantatu behar duenean bezala, galdurik sentitu nintzen, desorientaturik, nondik hasi ez nekiela, ez zertaz idatzi. Idatzi nezake musikaz, politikaz, sexuaz, literaturaz... Askota askotarikoak baitira gazteok kezkatzen gaituzten gaiak.

Kulturak, ordea, librean ari- tzeke zailtasunak izaten ditu maiz. Kulturak moda eraldatze- ko ahalmena du behar bezain berritzailea eta kritikoa bada, baina errazagoa izaten da mo- dak kultura bere gisara molda- tzea. Izan ere moda jarraitzen ez duten kulturagileak berehala izaten dira baztertuak.

Baina nork sortzen ditu mo- dak? Betetzen al dituzte kon- sumitzaileon apetak, ala kon- sumitzaileok lerratzen gara moden bideetara? Bigarren honen ustekoa naiz ni. Indus- triak eta batez ere medio na- gusiek kontrolatzen dute guk kontsumituko dugun kultura. Ikusi besterik ez dago gaz- teon artean gehien entzuten diren irratietako musika bera entzuten dugula tabernetan. Edota medio hauetan oihar- tzunik handien duten kultur ekitaldien arrakasta zuzene- koetan.

Adibiderako gogoan dut izaz astebetean bi antzerki saio iku- si nituela. Biak ala biak euska- razkoak. Lehena umore erraze- koa, nire uste apalean aktoreen erdipurdiko lanarekin, baina medio publikoetan sarritan aditutakoa. Bigarrena umore beltzekoa, landua, aktoreen lan bikainarekin. Lehen saioan erabat bete zen aretoa, biga- rrenean erdia ere ez.

Ez nator ni hona inongo mu- sikari, antzerkilari edo kultur- gile kritikatzera. Medioek gure kultur kontsumo ohituretan duten garrantzia azpimarra- tzeraz baizik.

Zer esanik ez euskal kulturaz ari garenean. Edorta Jimene-

zek esana da, ez polemika gu- txirekin, euskaldunok irakur- tzen dugun literatura Madrilen hautatzen dela. Nik gainerako kulturarekin ere antzerkorik badela esango nuke. Madrilen, Gasteizen ala nonbait aukera- tzen dutela guk izango dugun kultur eskaintza. Musikari bat baino gehiago dira euskal me- dio publikoetan jasan duten zentsura salatu dutenak.

Eta kultura “kontsumoaz” ari naiz behin eta berriz, eta ez kulturaren “parte-hartzeaz” edo “sortzeaz”. Izan ere kultur kontsumitzaile hutsak bilakatu gaituzte. Konturatuak dira kul- turak jendartearen eragin ditza- keen aldaketek eta masa kon- trolerako erreminta bihurtu dute. Ekonomia, politika edo futbola bezalaxe.

Hori dela eta beharrezkoa deritzot kultur askatasuna, li- brean arietzeko beharra. Kultu- rak jendartearen isla behar du izan, urratzailea zenbaitetan, elkarlanean, anitza. Horretara- ko beste zenbait esparrutan erabiltzen den terminoa ba- liatuko dut, kultur glocalarena -globala eta lokala-, globalki pentsatuz lokalki lan egin. He- rri kultura indartsu bat behar dugu, elkarlanean, behetik hasi eta menpekotasunik gabe bere bidea egingo duena.

Baina nik hau guztia esan aurretik ere, bada Tolosan eta Euskal Herri osoan horretan diharduen jendea. Hala bedi!

Sarri askotan bertsolariak uzten dituzten alerik onenak librean izan ohi dira, inolako zentsurarik gabe, benetan sen- titzen dutena adieraziz. ©

## Librean

## Mutanteak

Kultura, antzerkia, hez- kuntza, teknologia... Gaiak kateatu egiten ziren bata bestearen atzetik ia kontura- tu gabe.

Elkarrizketako momentu batean lagunaren begiak pasioz bete ziren eta zera esan zidan: “Ba nik, horrekin lotuta ideia bat daukat. Bai- na oso ona, e! Izugarriko ideia!”

Ordu erdi bat pasa zuen bere ideiar buruz hitz egi- ten, bueltak eta bueltak ematen, berriro hasierako kontzeptura iristeko: ideia bat zeukala, alegia.

Egun batzuk geroago bes- te lagun batekin egin nuen topo. Kasu honetan Tolosan gertatu zen topaketa.

Berriro besarkada, berriro elkarrizketa eta berriro ere gaiak kateatu egiten ziren bata bestearen atzetik. Baina kasu honetan gure begiak pasioz bete ziren lehenengo momentutik. Tolosarren pa- sioa, badakizue...

Bat batean lagunak zera esaten zidan: “Ba nik ez da- kit zenbat ideia dauzkadan. Egunero ideia pilo bat bu- ruratzen zaizkit eta niretzat bat aukeratzea izaten da zai- lena. Orain proiektu batean murgilduta nago...”

Proiektu bat! Hori ideia bat baino askoz ere gehiago da.

Aurreko astean, antzezlan bat ikustera joan nintzen. To- losaldeko lagun batek parte hartzen zuen laguntzaile moduan eta berak gonbida- tu ninduen.

Berdin dio gustatu zitzaiz-

dan ala ez, antzezlan bat zen. Ekintza bat!

Eta ekintza bat proiektu bat baino askoz ere gehiago da, ezta?

Zenbat ideia behar dira proiektu bat sortzeko?

Zenbat proiektu geratzen dira bertan behera ekintza bat lortu arte?

Eta zenbat ekintza anto- latzen ditugu urtean zehar Tolosaldean?

Hainbeste galderekin nire buruko “disco gogorra” hiru kontzeptu horiek aztertzen hasten da: ideiak, proiektuak eta ekintzak.

Dakizuen bezala denok gure buruan “disco gogor” bat daukagu eta zer edo zer aztertzen hasten denean ez dakigu noraino iritsiko den. Askotan zaila egiten zaigu esaten duena ulertzea. Baina hala ere, bere analisia luzatu nahiko nizueke.

Hona hemen nire buruko “disco gogorraren” ondo- rioa:

Eman dezagun zentral nu- klear bat dagoela.

Zentral nuklearraren biho- tzean “fuga radioaktibo” bat baldin badago inguruko izaki guztiek mutazio bat pairatu ahal izango dute. Ezusteko aldaketak jasango lituzkete eta moldatuz gero arraroak bihurtuko lirakeke.

Tolosa betidanik “zentral inauteriar” handiena izan da eta bere bihotzean sekula- ko “fuga kulturaktiboa” izan dugu.

“Kulturaktibitatea” barru- raino sartzen zaigu txikita-



May Gorostiaga  
Teatreroa (Intujai Teatro, Amaroako Antzerki Artisauak...)

Ideiak, proiektuak, ekintzak... Orain dela aste batzuk kanpora joan eta aspaldi ikusi gabeko ezagun batekin topo egin nuen. Besarkatu ondoren hizketan hasi eta beti bezala mundua konpontzeko asmoarekin aritu ginen, noski.

tik, beraz Tolosaldean denok “mutazio” harrigarri batean bizi gara. Xomorro arraroak bihurtu gara.

Aukera onena onartzea da: “Mutanteak” gara!

Zenbat ideia bururatzen zaizkigu egunero?

Zenbat proiektutan gaude sartuta?

Zenbat ekintza sortzen ari gara?

Eta hori guztia, gehienu- tan, zarata atera gabe. Ho- tsik ez, isiltasunez...

Agian nire buruko “disco gogorak” arrazoia dauka eta “mutanteak” garela onar- tu beharko dugu.

Ideiak, proiektuak, ekin- tzak... Erabateko isilpean...

Entzun, arren.

Gora Mutazioak!

Gora Mutu-Akzioak! ©

# Mintzalaguna egitasmoan izena emateko aukera zabalik da

Euskararen erabilpena bultzatzeko, euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak ohitura ez dutenekin elkartzean datza Mintzalaguna egitasmoa. Urria eta ekaina artean, astero gutxienez ordubetz, hiru-lau pertsonen osatutako taldeak elkartuko dira Galtzaundik koordinatuta. Horietariko bat egunerokotasunean euskaraz hitz egiteko ohitura duen pertsona izango da. Besteak, berriz, arrazoi bat edo bestea medio euskaraz hitz egiteko beharra dutenak izango dira. Euskaraz hitz egiteko premia dutenek eta hauei eskua luzatzeko borondatea dutenek irailean eman behar dute izena Galtzaundin Mintzalaguna egitasmoan parte hartzeko.

Erredakzioa

Tolosako kafetegiak, parkeak,... astero, ordubetez, euskaraz aritzeko aitzakia bilakatuko dira urria eta ekaina artean. Euskara komunikaziorako bitarteko, lagunarte berriak sortuko dira Tolosan. Halaber, egunerokotasunean euskaraz hitz egingo duten pertsona gehiago izango dira.

Hori da Galtzaundik koordinatuta egingo den Mintzalaguna egitasmoaren helburua: euskaraz hitz egiteko gutxieneko gaitasuna dutenei bideak irekitzea egunerokotasunean euskaraz hitz egin dezaten. Eta, bidea bi norabidetan zabaltzen da Mintzalaguna programan. Batetik, euskaraz hitz egiteko trebetasuna hartuz. Bestetik, euskaldunekin harreman sareak landuz.

Mintzalaguna egitasmoan parte hartu dutenek aitortu dutenez, astero euskaraz lasaitasunez hitz egiteko gunea izateak euskaraz aritzeko beldurrak kentzen laguntzen du. Izan ere, sarri, hanka sartzeko beldurrak, lotsak,... euskaraz hitz egiteko ohitura ez dutenek gainditu beharreko mugak dira lehen hitzetik euskaraz aritu daitezen. Eta Mintzalaguna egitasmoa horretarako gune ezin aproposagoa da.

Euskaraz hitz egiteko ohitura duen bolondresa lagun izaten dute euskaraz hitz egi-

teko beharra dutenek. Edozein gai aitzakia, Mintzalagunako partaideak euskaraz hitz egitera bultzatzen ditu. Irakasle paperean baino hizketaldirako lagunarenean sarturik, hizketaldia osatzeko hitz egokiak topatzen, hizketaldia garatzen,... laguntzen du hiztunak.

Euskaraz hitz egiteko beharra dutenek euskaldunekin harreman sareak lantzen dituzte Mintzalaguna egitasmoari esker. Mintzalaguna egitasmoan parte hartzen duten beste pertsonekin harreman pertsonala lantzeaz gain, Galtzaundik urte osoan zehar antolatzen dituen ekimenetara gerturatzeko gonbiteak jasotzen dituzte eta, berauetan, euskal giroan murgiltzeko aukera izaten dute. Halaber, helburu berarekin, euskara hutsean Tolosaldean egiten diren ekimenen inguruko informazio zuzena ematen die Mintzalaguna egitasmo partaideei Galtzaundik.

#### Euskal Herriko datuak

Euskara elkarteek nahiz AEK-k koordinatuta, 3700 lagun inguru dabilta Gipuzkoan, Bizkaian, Araban eta Nafarroan egiten diren Mintzalaguna programetan. Gasteizko Jaurritzak egindako ikerketaren arabera, urtetik urtera gora egin du Mintzalaguna egitasmoan izen emandakoen kopuruak.

Hiztunen kasuan, euskararen aldeko ekarpena egitea eta euskara ikasten ari direnei laguntzea dira Mintzalagunaren izena emateko motibazio nagusiak. Euskaraz hitz egiteko beharra dutenen kasuan, berriz, euskara gehiago erabiltzea eta euskara maila hobetzea dira motibazio nagusiak eta, ondorengo datuek erakusten dutenez, aipatu helburuak lortu egiten dituzte batzuek nahiz besteek.

Euskaraz hitz egiteko beharrragatik Mintzalaguna egitasmoan izena eman dutenen %85 inguruk aitortu duenez, asko balio izan dio euskaraz gehiago egiteko. Partaideen %95k, berriz, Mintzalaguna egitasmoari esker bere euskara maila hobetu egin dela esan du. Halaber, %90 inguruk Mintzalaguna egitasmoari esker euskaldun gehiago ezagutzea lortu du. Euskara maila hobetzeak eta euskal giroan integratzea euskaraz bizitzeko gogoak areagotu egin dizkie



Mintzalagunako partaideei. Hala aitortu dute galdetutakoa ia guztiek, partaideen %99k hain justu.

Horregatik, oso puntuazio altua eman diote Mintzalaguna egitasmoari. Euskara elkarteek koordinatuta egiten diren Mintzalaguna egitasmo guztietako partaideak kontuan hartuta, 10etik 8.8ko puntuazioa jaso du aipatu egitasmoak. Tolosan

Galtzaundik koordinatuta 2010-2011 ikasturtean egin den programak, berriz, 9.2 puntuazioa jaso du.

Beraz, euskaltzaleek eta euskaraz hitz egiteko beharra dutenek orain dute aukera modu eraginkorrean euskararen alde eragiteko. Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko, Galtzaundirekin jarri behar da harremanetan.



**BENTA ALDEA**  
JATETXEA

TEL.: 943 654 079  
ANOETA  
-TOLOSA BIDEAN

**SANZ**  
arraindegia

Tel.: 686 98 21 74  
943 65 17 85

Nafarroa etorbidea,  
7 behe  
20400 Tolosa



Bidaiarik erakargarrienak

Korreo kalea, 5 - TOLOSA | Tel.: 943 674 566 | Faxe: 943 674 113



**errrotatxo okindegia**

Andia kalea, 3      Amaro, 9-A  
Tel.: 943 655 492      Tel.: 943 671 038

Irailaren 11n Kontxako 2. Jardunaldiaren lehia

# Aurten bai!

8 Tolosaldea Arraun Klubeko arraunlariak denboraldi bikaina idazten ari dira; lehiatutako estropada gehienak eurenak bihurtu dituzte, Orikoa eta Espainiako txapelketa baino ez dira euren palmaresetik at geratu. Honenbestez, Gipuzkoako Liga ere dagoeneko eurena da. 'Esperantza' ontziko emakumeek orain ordea Kontxako Banderan begiak, indarrak eta itxaropena bera jarri dituzte. Irailaren 2an lehen sailkapena jokatu ostean irailaren 4 eta 11n, Kontxako 1. eta 2. jardunaldia irakiten egongo da. Tolosaldeko herritarrok animoak emanez 'Aurten bai!' sinetsiko dugu.

Naiara Roldán de Aránguiz

Ioana Alijostesek, Irati Larrañagak, Naroa Urkolak, Olatz Ortizek, Maitane Garmendiak, Amaia Doyaguek eta Olatz Aldalurrek harro sentitzeko bidea egin dute aurtengo denboraldian, izan ere, eskuratutako palmaresa ez da edonolakoa. Ekainetik hona, tolosarren eskuetatik 10 sari igaro dira: San Juaneko estropada, Bilboko, Zumaiakoa, Gipuzkoako txapelketa, Pedreñako estropada, San Pedrokoa, Euskal Herriko txapelketa, Getxoko estropada, Zarauzkoa eta Hondarribikoa.

Emakume arraunlari hauen arteko elkarrizketetan Kontxak presentzia berezia du egunotan, nonahiko garrantziaz de-

finitu daitekeena. Kontxarekin batera eta denboraldiko gainerako estropadetan bezala, bestelako elementu batzuk ere solasaldietan behin baino gehiagotan entzuten masajista, ipurdiko minak, furgoneta, desplazamenduak, entrenamenduak, tripako minak, palakadak, aurkako ontziak, patrioiak, janak, itsasoaren egoera... Hauek guztiak berehala hilabetez atsedean hartuko dute arraunlarien bizitzan baina aurretik probarik berezienari aurre egin behar: Kontxako bandera. Arraunlariak aitortu digutenez garaipena lortzea "helbururik handiena eskuratzea izango litzateke".

Ezinbestean Kontxako banderaz mintzatu da Galtzaundi Ioana Alijostes, Naroa Urkola eta Olatz Ortiz Tolosaldea Arraun Klubeko arraunlariekin. Aurreneko galdera, hala ere, nahita nahiez orain artean eskuratutakoari buruz luzatu behar:

Dagoeneko denboraldiaren ia amaieran aurkitzen garen honetan, orain artekoaz zer nolako balorazioa egin dezakezue?

Ioana Alijostes: Balorazio oso ona da; zehaztu diren helburu guztiak pixkanaka betetzen joan dira. EuskoTren ligan sartzea lehenengoa izan da; sartu eta irabazi egin dugu. Gipuzkoa eta Euskal Herriko txapelketak esku-

ratu ditugu. Gipuzkoako Liga ere gurea da eta dagoeneko Kontxa bakarrik falta zaigula jarriko gaude. Kontxa lortuko ez bagenu ere denboraldiaren balorazio oso positiboa egin beharko genuke.

Elkarrizketa hasi besterik ez eta Kontxa lehendabiziko erantzunean azaldu egiten da. Proba honen garrantziaz ohartuta, elkarrizketa Kontxako Banderara bideratu dugu informazio zehatzagoa eskuratzeko helburuarekin. Probak aurten gainera emakumezkoen mailan berritasuna dakar; gizonezkoarekin parekatu aldera sailkapen eguna eta bi jardunaldietako proba izango da. "Arraunaren Olinpiada" deritzon honetan 7 emakume ontzi lehiatuko dira 1,5 itsas miliako ibilbidea burutuz.

Proba nagusian, 'Kontxako bandera' begiak jarriko dituzuela, indarrez heldu zarete. Zer espero duzue proba honetaz?

Olatz Ortiz: Gure lana behintzat eginda dugula uste dugu. Ez dakit faboritu ote garen baina galiziarrekin batera parean egongo garela ziur gaude. Aurreko asteburuetan eman dena

eta gainerako traineruak nola dabilen ikusita, horrela izango dela zalantzarik ez dago. Tolosa -Getaria eta galiziarren artean egongo da lehiarik gehien.

Zer suposatuko luke bandera hau eskuratzeak?

Naroa Urkola: Arraunlari bantentzat handiena litzateke, egingo esfortzu guztiaren ostean, horrenbeste ordu dedikatuta, helbururik handiena eskuratzea izango litzateke.

Probak aurtengoan berritasuna izan badu, emakumezkoen maila lehenengoz bi jardunaldietan jokatu da. Zer nolako eragina izango du zuentzat?

Ioana: Aurten mutilen formatu berdina jarri dute, ostiralean 7 ontziren artean sailkapen fasea egingo da eta ondoren bi igandetan bandera jokatu da. Honako hau da berrikuntza nagusia. Onura aldetik esan beharra dago, estropada bakarrena jokatzeko den txapelketa guztietan kaleak, zorteak, egunak berak asko egiten duela. Bi igandetan jokatzeko ordea, benetan demostratu behar da ontzia nola dabilen; orduan, ka-

leen eta eguraldiaren kontuak bigarren plano batean geratzen dira. Kasu honetan, zorteak ez du hainbesteko garrantzirik, benetan erakutsi behar dena, ontzi "potentea" izatearena da, era kolektiboan bi igandetan erakutsi beharrekoa da.

Nolakoak izaten dira zuen entrenamenduak? Batik bat, azken proba honi zuzendurikoak bereziak al dira?

Olatz: Neguko entrenamenduak beti ere luzeagoak izaten dira. Udara partean gehien bat serie motzak lantzen ditugu. Kontxa bezalako bandera baten aurretik, estropada astean, entrenamendu suabeak egiten ditugu, estropadara nekatuta ez iristeko helburua bilatuz.

Honakoa entrenamendu fisikoa-ri dagokionean, baina psikologikoaz zer aipatu daiteke? Tankera honetako proba batera burua prest eraman beharko da...

Ioana: Entrenamendu berezirik ez dugu egiten baina entrenadoreak txarla txikiak botatzen dizkigu, egunero-egunero solasaldiak eskaintzen dizkigu. Ondo dator nolabait burua prest



**Aurtene**  
LORATEGIA CB

Etxebarru zein kalerako lorak.  
Lorategi lanabesak.  
Lora legor eta apaindura tresnak.

Santa Luzia Auzoa, 1 -  
Tel.: 943 673 118 Tolosa

euskararen semaforoa  
euskararen semaforoa  
blogspot.com



matilda

zure moda osagailu denda

Korreo Kalea, 3  
Tolosa



eramatea, azkenean %50a baino gehiago buruak egiten du. Estropadara mentalizatuta joatea beharrezkoa da, irteeran zertara zoazen jakitea eta azken finean, kirolaren jarrera hori izatea ere beharrezkoa da. Nik irabaziko dudala pentsatu ezean, zeinek sinistuko du?

Azterketa medikoeek, janak eta tankerako elementuek ere garrantzirik ba al dute?

Naroa: Mediku aldetik kon-



## Pasaiako batelariak

Emakumeek arraunean urte asko daramatzate Euskal Herrian eta XVII eta XX. mendeen artean Pasaiako badian lan egin zuten emakume txalupazainen ogibidea ikertu du Rosa M. Cantinek. "Pasaiako batelariak" izenburupean kaleratutako lanean azaltzen denez, Pasaiako badia alde batelak eta, zeregin horretan, batik bat, emakumeak aritu ziren aipatu denbora tartean. XVIII. mendera arte batelarien jarduera ofizial nagusia Elizari lotua egon zen eta fraile predikatzaileen joan-etorriaz arduratu ziren. XIX. mendean, berriz, armadarentzako egin zuten lan. Halaber, Pasaiako portuan ainguratutako ontzietara pertsonak eramaten eta merkantzia batetik bestera mugitzen aritzen ziren. Batelarien lanak garrantzia handia izan zuen bertako ekonomian eta aipatutako zereginenez gain, Pasaiako

Udalak eskatutakoak ere egin zituzten. Batelarien lana prestigio handikoa zen baina egindako lanagatik gizonezkoek baino ordainsari txikiagoa jasotzen zuten -%50 gutxiago ere-. Batik bat, Pasaiako eta ondoko herrietako -Lezo, Errenteria,...- emakumeak aritu ziren batelari lanetan eta, belaualdiz belaualdi transmititutako zeregin honi beraien bizitzako urte asko eskaintzen zizkien emakumeek. Horren arrazoi nagusietariko bat bertako gizonezkoek kanpoan hilabete -baita urteak ere- asko pasatzen zituztela eta, ondorioz, familiak ekonomikoki aurrera ateratzeko emakumeek etxetik kanpo ere lan egin behar izaten zutela da aipatu ikerketaren arabera.

Igor Mujika



trolak izaten ditugu, jarraipen bat izaten dugu gure gorputza nola dagoen jakiteko, hileko medikutik pasatzen gara bitaminen eta burdinaren kontrola egiteko. Orain gainera uda garaian beroa dela eta desgaste askoz handiagoa izaten dugu. Bestetik, pisuaren eta fisikoaren alorrak bakoitzaren kontua izaten dira, bakoitzak landu beharrekoak dira, baina egia da, helburuak lortzeko puntu garrantzitsuak direla.

Eta afizioak zer nolako pisua eta indarra dauzka?

Ioana: Pisu handia dauka, familiak bereziki. Familia ezer ez bizitzetik gurekin batera dena bizitzera pasa da. Azkenean gurasoek egunerokoa zurekin batera bizi dute; zein jan mota ezin duzun jan, afaria

izan eta ezin joan, arratsaldeko 6etan egunero entrenatzera joan behar izatea... Azkenean haiek ere erabat inplikatu egiten dira. Estropadara joan eta haiek ere kanpotik gaizki pasatzen dute.

Kontxako Banderari zuzenduta Tolosa herria eta Tolosaldea eskualdeari arraunlariak proba garrantzitsu honetan animatzeko deialdi berezia egiteko aukera eman diegu neskei. Euren ustetan mutilek atentzio askoz gehiago eskuratzen badute ere, urte urte jende gehiago gerturatzeko delako da. Hala eta guztiz ere, Getarian askoz gehiago antzematen den kontua da, "bertan gehiago bizi da", diote neskek. Kostaldeko herria izanik Getaria bera inplikatuago dago Getaria-Tolosa taldearekin. Ezin aipatu gabe utzi gainera bandera bakoitza eskuratzearekin batera bertan jasotzen duten harrera eta ongietorri ospakizuna.

Estropada egunean arraunlariak itsasotik afizioaren kolore urdina antzematea garrantzitsua da oso. Honela deskribatzen dute arraunlariak sentimendu hori: "portuko momentua oso polita izaten da; bertan kolore urdina, zure kolorea ikustea gozamen da. Aurpegiak baino koloreak ikusten dira, eta TAKeko kamisetak ikustea eskertzen da. Kolore kontua izaten da. Gure afizioari lehorreratzeko laguntzea eskatzen diogu", aldarrikatzen dute

neskek. Irailaren 2, 4 eta 11n beraz Tolosaldeko bizilagunak Donostiako portura urdinez jantzita joan eta "Esperantza" ontziari indarra ematea baino ez da falta.

Emakumeen arrauna

Hala ere, elkarrizketarekin amaitu aurretik ezin emakumezkoen arraunari erreferentziarik egin gabe utzi. Hedabideetan irabazitako tokia neska arraunlarien lorpena baino ez da. Oraindik orain gizonezkoekin alderatuta, aldea nabari bada ere, egindako bidea ez da makala; Ioana Alijostes, Naroa Urkola eta Olatz Ortiz baikor azaltzen dira; nesken eta mutilen egoera ezberdina kontutan ere hartu behar dela azpimarratuz:

Emakumearen arrauna bere tokia hartzen doa... Nola ikusten duzue emakumearen presentzia arraunean? Eta gizarteak nola ikusten du?

Olatz: Urtetik urtera indartzen doa. Hasieratik orain arte guk bizi izan dugunean behintzat eboluzio txiki bat ikusi da, geroz eta gehiagora doa. Mutilen parera oraindik ez da heldu baina behintzat gutxika gerturatzen goaz.

Ioana: Emakumea orain arte ontzi txikietan -bateletan, trainerilletan...- presente egon da. Ontzi handietara pasa denean, orduan hasi da gizartea ezagutzen. Orduan eman da benetako saltoa. Komunikabideak sartzea ere asko egin du.

Hala ere, gizonezkoekin alderatuta alde handia mantentzen dela uste duzue?

Ioana: Aldea egon bada; Kontxan mutiletan saria

24.000 eurokoa da eta nesketan 8.000koa. Egia esan entrenamendu berdinegatik eta gauza berdina egitegatik aldea badago, baina bestalde ulertu beharra dago baita ere neskak ontzi handietan oraintxe hasi garela. Egia da bultzada handia eman dela baina arraunlarien lorpena baino ez da. Oraindik orain gizonezkoekin alderatuta, aldea nabari bada ere, egindako bidea ez da makala; Ioana Alijostes, Naroa Urkola eta Olatz Ortiz baikor azaltzen dira; nesken eta mutilen egoera ezberdina kontutan ere hartu behar dela azpimarratuz:

Mutilen kasuan Kontxa due-la ehun urte baino gehiago jokatzen da eta lehiatzen den ontzi kopuruak ez du neskekin zerikusirik. Egoerak ez dira berdinak eta hori ere kontutan hartu behar da. Ezberdintasunak egon badaude baina aurrerapausoak ematen gabilta eta horrek egunen batean berdintasunera iritsiko garela esan nahi du -nesketan ere 50 ontzi egotea, sariak berdinez izatea... Bidea egiten ari dela baikortasunez begiratu behar.

Aurtengo Kontxako bidea ordea 7 klubei egitea dago. Egun handi hori pasata zer dagoen galdetzerakoan, hurrengo denboraldian begiak jartzeko eskatzerakoan, Kontxa baino ez dute buruan: "oraingoz buruan Kontxako eguna dut, aspaldi gabilta Kontxarako zenbat falta den egunak zenbatuz eta hurrengo egunean zer egingo dugun ez dakigu", dio Ioanak. Galdera berak lasaitasunera bueltatuta, tentsiotik kanpo, nekea gaindituta eta garrantzitsue-na, Kontxako Bandera jokatuta, erantzun ezberdina izango lukeela argi dute. Orain, ordea hurrengo urteagatik galdetuta "dena alde batera uzteko gogo dagoela" ere esatera heldzen dira.

Hala ere, hurrengo denboraldiari begira Kontxa amaitu

eta aurre-denboraldia hasi aurretik hilabete-hilabete terdiko atsedena dutela kontutan harturik, denbora horretan deskonektatu eta data gerturatzeko ari dela berrituko hasteko gogoz jartzen direla azpimarratzen dute. Are gehiago, argi dute neska arraunlari berriak animatu behar direla eurek egindako bidea jarraitu dezaten. Azken urteotan Tolosaldea Arraun Kluba "lanean aritu eta gero, blokea sendotuta, EuskoTrenako plaza eskuratuta" 2012ko denboraldiari zeharka begiratzea ezin ekidin.

Hala ere, oraingoa, Kontxari begira: "Aurten bai!" esatea besterik ez da falta.

## 2011ko Getaria-Tolosaren Palmaresa

**Ekainak 25:** San Juaneko estropada (Gipuzkoako Ligako 1. jardunaldia)

**Uztailak 3:** Bilboko estropada (Euskotren Liga)

**Uztailak 10:** Zumaiako estropada (Gipuzkoako Ligako 2. jardunaldia)

**Uztailak 13:** Gipuzkoako Txapelketa

**Uztailak 16:** Pedreñako estropada (Euskotren Liga)

**Uztailak 23:** San Pedroko estropada (Gipuzkoako Ligako 3. jardunaldia)

**Uztailak 25:** Euskal Herriko Txapelketa

**Uztailak 30:** Getxoko estropada (Euskotren Liga)

**Abuztuak 13 eta 14:** Zarauzko estropada (Euskotren Liga)

**Abuztuak 21:** Hondarribiko estropada (Gipuzkoako Ligako 4. jardunaldia)

**Xirimiri**  
Txokolategia  
Xabier Izaguirre

**Gosariak eta meriendak**

Tel.: 943 675 223  
Errementari kalea, 40 • TOLOSA

**ELUSTONDO**  
ELEKTRIZITATEA

Argi lanak  
Iluminazioa  
Antenak

lurre, 4 (Mustad)  
943 672 300  
Amaroz, 21.  
943 675 513  
20400 TOLOSA

**Zumardi**

SEGURAS  
BILBAO



Aholkularitza  
integrala

Laskurain, 8-behea  
TOLOSA  
Tel.: 943 651 877

**Martin**

**Eceizabarrena**

Instalazio  
erreforma  
Konponketak

Igaralde, 11 - Tolosa  
Tel.: 943 672 445  
Mobi.: 608 774 822

**J. San Sebastian**  
MARISKO ETA ARRAINAK



Foruen etorbidea, 5 • TOLOSA  
Tel.: 943 653 528 / 943 682 141

# III. EH Eguna, Ibarra-Lizarraren Anaitasunarekin jarraitu

Irailak 17, larunbata, ospakizun eguna

Hirugarrenegoz datorren irailaren 17an, larunbatean, Euskal Herri Eguna ospatuko du Ibarra-Lizarraren Anaitasunarekin. Lizarrarekin duela bi urtetik landutako anaitasunari ekingo dio ospakizun egun horretan, oraingoan gainera Algorta herri bizkaitarra gonbidatu gisara gerturatuko da, alde aurretiko lotura hedatu nahiaz. Festa eta errebindikazio egunaz informazio gehiago eskuratzeko helburuarekin Galtzaundi Josu Ozaita eta Unai Igartua antolatzaile eta parte hartzaileekin bildu da.

Naiara Roldán de Aránguiz

2009an lehenengoz ekin zitzaion Ibarra-Lizarraren Anaitasun festa antolatzeari Euskal Herri Eguna ospatuz Bai Euskal Herriari elkarteak Ibarrik bultzatuta. Urteak tartekatuz Ibarra-Lizarraren Anaitasun egun honen antolatzaile bilakatu dira, aurtengoan berriro ere Ibarra-Lizarraren Anaitasun egun modura Algorta herria gonbidatu gisara azaltzea izango da,

izan ere Unai Igartuak azaltzen duen moduan "helburua lurraldeak batzen joatea da". Algortako elkarte ezberdinak direla medio harremana izan badu Ibarra-Lizarraren Anaitasunarekin eta hori festa honetan parte hartzearen zergatiak bat da. Euskal Herri Egunaren ospakizunaren helburua Josu Ozaita dioen modura "Euskal Herria aldarrikatzea, herrialde ezber-

dinen arteko herritarren artean harremana sortzea da". Antolakuntza ordea Ozaitaren hitzetan "talde motor bati dagokio"; hiru hilabetez behin elkartu eta urte guztiko ekintzak ikusi eta antolatzen ditu. Bertan eragile ezberdinetako ordezkariak biltzen dira -tartean, Sendi Ekintza, Alurr Dantza Taldea, Haitzetan Raju Mendi Elkarte, Ibarra Gaste Asanblada, Subegi, Eneko Aritza, Denak Areto Futbola, Dultzaineroak, Musika Taldeak, Bartola eta Trikitixa Taldea-.

Josu Ozaitak aipatzen duen modura EH Eguna "festa handia da, baina urtean zehar ekitaldi ezberdinak ere antolatzen dira". Izan ere, herri bietako eragile ezberdinen artean hilabetez bestelako ekintzak ere antolatzen dituzte; mendi-irteerak, dantza-ikuskizunak, bertso-saioak, zikiri janak, festak, inaugurazio ekitaldiak, futbol txapelketak, sagardotegi irteerak... Hauek 2010-2011ean aurrera eramandako ekintza adibide batzuk baino ez dira.

## LipDub

Azken aldirian modan jarritako LipDub delakoa Ibarra-Lizarraren Anaitasunarekin ere aurrera eramango dute bertaratutakoek. Berez "ezpain bikoizketa" edo "ezpainak mugimenduan" esanahia duen ekimena landuko dute EH Egunean; 300 pertsona dantzan jarriko dira Dolce Tanganaren doinuak gidatuta. Parte hartzaileekin egin beharra abestia abes-



tea izango da, energia transmituz eta kamara jonez. Bertan EH Egunaren baitako erakunde eta norbanakoek parte hartuko dute baina bete lanak egiteko jendea ere ez da falta izango. Irailaren 17an behin baino gehiagotan entzungo den kanta ikasten hasteko aukera ondorengo leuroetan:

*Ibarrik Lizarra aldera, baso eta oihan zeinen ederrak, itsasoz ere surfean goaz olatu hartuz Algorta aldera mugarik gabe heda dadila, gazteriaren doinu distira! Parrandarik ez, ez dela falta, gure omenez egin dezagun topa!*

*Egin zaitez bat!  
Hau da eguna!...  
Eta zazpi semeek maite dugu ama bakarra babestuko zaitugu, eta hiru kolore izatez garelako denok bat Euskal Herria ama maite!*

*Arrazarik ez, berdintasunez, jokatzeak da bakar bide!*

## III. EH Eguna. Ibarra Egitaraua

- 09.45** Harrera Ibarra sarreran eta kalejira
- 11.00** Hamaiketako Araneko iturria
- 12.00** Herrien arteko Ginkana
- 13.00** Ekitaldia
- 14.00** Bazkaria Emeterio Arrese frontoian
- 16.00** LipDub-a eta kalejira poteoa Elektrotxaragarekin
- 20.00** Afari merienda Subegi elkartean Algortako musikariek alaituta
- 21.00** LipDub-aren estreinaldia Gaztetxean
- 22.00** Kontzertuak: Dolce Tangana eta Bide Bakarra, ondoren sorpresa!

Ume txokoa egun guztian zehar egongo da. Sarrerak salgai egongo dira Ibarra Atari eta Danon-en, Lizarrako Katxeta, Berri, Ametsa eta Gaztetxean eta Algortako Kaktilu, Gestorak eta Etxabaida Gunean.

*Rashid-ek ere amestu zuen, borrokatu zuela euskararen alde! Orlegi berdez gure mendiak, zuriaz benetako justizia, nortasunetik sen eta grina, aterako da iraultza gorria!*

*Gorri bizia, hiru herritatik, lau haizeetara txikietan handienak garelako, handiak gara!...  
Eta zazpi alabek maite dugu ama bakarra babestuko zaitugu, eta hiru kolore izatez garelako denok bat Euskal Herria ama maite!*

**ZALBIDE**  
Tolara Sagardotegia

Haragiak eta arrainak parrilan. Ostirala, larunbata eta igande eguerditan irekita, iluntzetan eguncero.

Zalbide baserria - Abaltzisketa  
Tel: 943 652 176



**SANTAMARIA**  
Ortopedia

- Garabi eta aulki elektrikoaren erakusketa.
- Kirola egiteko ortopedia sail berria.
- Osakidetzarekin hitzarmena.
- Ohe artikulatuak distantziarako mandoarekin.

Laskurain 11 • Tel.: 943 654 610  
TOLOSA

**kutxa**

“Tolosan Leidorreko zine programazioarekin egiten dena eredugarria da”

# Jose Luis Rebordinos

Jose Luis Rebordinos (Errenteria, 1961) Gazteluko Martintxo baserrian bizi da eta bertan Zinemaldiaren prestaketa zurrunbilotik babesa aurkitzen du. Zinea pasioz bizi izan du betidanik, Errenteriako Zine-Klubeko bizipenetatik hasita, duela 32 urte. 21 urtez Donostiako Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea antolatzeaz arduratu da eta azken zazpi urteotan Donostiako Zinemaldiko lan taldeko partaide izan da, duela urtebete Zinemaldiaren zuzendari izendatu zuten arte. Jator eta adeitsu hartu gaitu Victoria Eugeniako bere bulegoan, oinarritik hasita Zinemaldiaren buru izaterainoko eskarmentuaren ezagupenak ematen duen patxadaz. Zine-Kluba ama zinematografikotzat jotzen du eta euskal zinearen egoera ona dela baieztatzen du, urtean hamarren bat filmetatik hainbat interes industrialekoak izatea mirari bat delako gurea moduko herri txiki batean.

Felix Aiestaran

**Aurtengo Zinemaldian** ohiko programazioaz gain, bi sail berri jarriko dira abian: “Gauerdiko Emanaldiak” eta “Zinea eta Gastronomía”. Beti ere, Donostiako Zinemaldiak aldeko duen ikusleko kopuru handia areagotzeko asmoz, eta bereziki gazteen konplizitatea bilatu nahian.

**Nola iritsi zinen zine mundura?**

Nerabezarotik oso zine zalea izan naiz beti. Nire nerabezarotan, zinea eta literatura babesleku eta bidaide bikainak izan dira. Zinean, batetik pasioagatik eta bestetik, planteamendu politikoagatik murgildu nintzen. Errenterian 1978an abagune oso zalapartatsuen

erdian, King-Kong Zinema Taldea eratu genuenean, zinema gustuko genuen, baina ez zen izan zine emanaldiak egiteko tokia soilik, elkarren arteko begirunetik abiatuta eztabaidarako topagune libreare ere izan zen.

**Nolako bizipena izan duzu Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteko zuzendari modura?**

Zoragarria izan da. Errenteriako Zine-Klub garaiarekin batera, Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Asteko zuzendaria izatea izan da nire bizipenik hunkigarriena. Donostiako Zinemaldiko zuzendaria izatearekin erabat ilusionatuta nago, baina beste maila batean aritu beharrak asko baldintzatzen du. Ikuslekoarekin 21 urtez oso harreman polita izan dut. Ikusle goa protagonista izan da eta kolektiboa ere eratua dute “El Patio de Butacas” izenaz. Jaialdiaren norabidean bere iritzi kritikoak eragin handia izan du. Ni batez ere zine ikuslea naiz eta ikusleekin horren harreman zuzena izatea oso aberasgarria da. Garai nahasiagoetan ere ideologia desberdinetako gazteek elkarrekin eztabaidatu ahal izan dute zine festaren inguruan.

**Zerk erakartzen zaitu horrenbeste beldurra eta umore beltzeko zinematik?**

Nik ez dut bereziki gogoko beldurrezko zinea. Duela 21 urte zine ez komertzialak ez zuela horrenbeste biltzen ikustean, beldurrezko filmei eutsi genien, batez ere, jende gaztea erakartzeko. Film fantastikoei errealitate berriak sortzean fantasia eta sormen plusa izaten dute. Zine beltza oso gustuko dut, baina edozein generotako

film onak gustatzen zaizkit.

**Zein bizipen izan duzu Zinemaldiko lan taldean?**

Diego Galanek deituta hasi nintzen duela 15 urte zuzendaritza taldean. Zinemaldia ondo ezagutu izan dut, baina zuzendari batek izan dezakeenaren ikuspegi desberdin batetik, noski. Atzerrian ere gehien balioesten duten ezagarririkoa da Zinemaldiko lan taldeak duen giza balioa eta profesionaltasuna. Honez gain, Zinemaldia oso ondo antolatua dagoela, Donostia zoragarria dela, oso ondo jaten dela eta batez ere zine aretoak ikusleez gainezka egoten direla. Hori denen ahotan dago.

**Zer emango dio Jose Luis Rebordinosek Zinemaldiari?**

Odol berria eta ilusioa eman nahi dizkiot. Lehendik ere oso ongi funtzionatu arren, Josemi Beltranek, Fantasia eta Beldurrezko Zine Astearen zuzendari berria izanik, nire 21 urteko ildoa hobetuko duenaz ziur nagoen modura, Mikel Olaziregik Zinemaldia oso ongi utzi duen arren, ni ere karguan urtetan dagoenak aldatu ezin dituen alorrak aldatzen saiatuko naiz.

**Zein izango da aurtengo Zinemaldiaren berrikuntza?**

15 urteotan egindakoa nire gain hartzen dut, iraultza baino garapena izango da. Zine industriaren agerpena eta nazioarteko prentsaren jarraipena garrantzitsuak izanik ere, Donostiako Zinemaldian ez dira nahiko genukeen hainekoak. Hiru edo lau urteko epean ari gara lanean. Aurtun, Europa eta Latinoamerika arteko ekoizpen foroa lantzen ari gara. Euskal eta nazioarteko zine ekoizleekin lanean ari gara, batez ere, beraien



“Zine-Klubek bideratu dute Zinemaldiko ikusleko zabalak.”

beharrak entzuten, Donostiara etortzean eroso egon daitezen. Eraikitzen ari diren Latinoamerikako filmentzako ekoizpen iturriak lortzeko, lehendik ere arrakasta zuen programan lanean ari gara. Aurtun, “Zine Ikasleen Topaketak” azpimarratu nahi ditugu, beraiek izango baitira etorkizuneko zinearen harrobia. Zinemaldia alaiagoa izan dadin lan egingo dugu. Garai zailetan festarako tokirik ez dagoela dirudien arren, festa Zinemaldiko egituraren zatia da. Festa zine industriako lagunekin solas egiteko eta negozioak lotzeko topagunea da.

**Krisiak astindu al du Zinemaldia?**

Krisiak dena astindu du. Aurtun aurrekontu handiagoko izango dugu, alde batetik aurtun Diputazioak ere diru laguntza emango duelako eta bestetik, babesle berriak bilatzeko lan gogorra egiten ari garelako.

**Hondartzan agertzen den mailetan zer adierazi nahi du?**

Alde batetik Zinemaldiko jendeak nazioartean film bila egin

behar duen bidaia eta bestetik Donostiara film amets bezala etortzen den maleta adierazten dituela esan zuen egileak.

**Aurtun bi sail berri izango dira, ezta?**

“Gauerdiko Emanaldiak” hiru egunetan izango dira, gazteen pentsatutako sail jolasti eta alaiagoa izango da. Nikkatsu ekoizle japoniarren pinka-eiga (film erotikoak) agertuko dira. Beldurra edo bortxakeria agertzen diren filma interesgarriak ere emango dira. “Zine eta Gastronomía” sailean, EAE metro karratuko munduko Michelin izar kontzentrazio handiena dugula kontuan izanik, Berlineko Zinemaldiak gastronomiarekin lotuta duen “Culinary Cinema” saila geurera ekartzeko akordioa egingo dugu, berarekin akordioa egingo dugu elkarlanean aritzeko. Gaiari lotutako zine saioaren ondoren, gaiari lotutako afaria izango da. Plater desberdinen jatorria jarraituz mundu osoan bidaiazten duen Felipe Ugarte eta Juanxo Sardonen “Mugaritz BSO” dokumentalaren mundu mailako



estreinaldia egingo da. Bertan Adurizek egiten duen gastronomia eta poesia islatzen dira.

ere Donostiako Zinemaldiaren aurrekontu bikoitza duela. Txikiagoa izateak jaialdi desberdina eskaintzeko aukera ematen

eta baita zine aretoak betetzen dituen ikusleen jaialdia ere. Donostiako zine ikuslegoa zinean nahikoa jantzia da eta filmare-

besteak beste, oihartzuna dakar; kritikari italiar batek saioa ikusten badu, hiru orrialdeko erreportajea idatziko du. Duela bi urte Washington Post-en euskal zineari buruz bi orrialde argitaratu ziren. Iaz hamasei film euskaraz azpigitututa eman genituen eta aurten kopurua handitu egingo dugu. 14.000 eskola umeei eskainitako filma euskaraz bikoiztuta emango da.

**Belodromoko haur emanaldiak oso jendetsuak izaten dira...**

Normalean euskaraz bikoiztutako film zaharra izaten da, baina aurten, "Katua Parisen" film berria izango da, Barton Films ekoizle etxeari eta Eusko Jaurlaritzari esker ahalbideratu da bikoizketa. Haurrak zinera festa giroan inguratu daitezzen bilatzen dugu. Film ona izateaz gain, adiskidetasuna moduko balioak agertzen dituen izatea nahi dugu. Etxeko DVDtik atera eta pantaila erraldoiaren espektakulu handia bilatzen dugu.

**Garai batean auzo eta herrietan egiten ziren emanaldiak..**

Umeentzako emanaldiak egiten dira, baina helduenak ezinezkoa da. Alde batetik sail ofizialeko ez dutelako utziko eta bestetik, filmen esku-bideak direla eta arazoak izaten direlako. Herrietan urtean zehar programazioak osatzen laguntzeko prest gaude. Alde horretatik Tolosan Leidorreko zine programazioarekin egiten dena eredugarria da. Abonua oso merke jarri dira. Ez dut ezagutzen aurreko alkatea, baina zine programazioa eratzten duen hiri mugimenduetarekin batera, aurreko Udala ere zoriandu beharra dut. Zine programazioa maila handikoa da eta irizpide zuzena izan dute zine komertziala eta zailagoa tartekatze.



"Apaltasunetik Zinemaldi ona egin daiteke."

**Zer azpimarratuko zenuke ohiko sailetatik?**

Oraindik ezin dut aurreratu, baina Zabaltegi eta sail ofizialeko betiko ildoak areagotuz, aurten heterogeneoagoa izango da. Oraitxe bertan indarrean dauden genero filmak eta bestetik, zine hizkuntz berriak bilatzen dituzten proposamen erradikalak eskainiz.

**Nazioarteko zine jaialdien artean aurrera egiteko apaltasuna aldarrikatzen duzu...**

Gu handien artean txikiak gara. Venezia, Berlin edo Cannes Donostiakoa baino jaialdi garrantzitsuagoak dira. Gu beraien ildotik atzeratu gabe goaz, baina jakin beharra dago, hiru horietako zine jaialdi txikiak

du. Ikuslea protagonista izan eta datozen zine egileak eroso egon daitezkeen zinemaldia da. Apaltasunetik Zinemaldi ona egin daiteke.

**Zein da Zinemaldiaren berezitasuna?**

Zinemaldiak gaztelaniazko zinearen jaialdia izan behar du. Latinoamerikako ekoizpen artistiko eta industrialak kontuan izanik, atzetik joan gabe, horretan buru izan gaitezke. Bestetik, Donostiak bokazio europazalea duenez, Europako zinemagintzari tokia egin behar dio. Azkenik, euskal zinemagintzak eta estatu espainiarreko zineak bere tartea izan behar dute. Zinemaldia bere programazioa asko lantzen duen jaialdia da

kiko erreakzioa adierazten duenez, zinegileak oso pozik joaten dira hemendik. Lana asko errazten duen azpiegitura oso profesionala dugu eta bestetik, Donostia toki zoragarria da datozenez.

**Zein toki du euskal zineak Zinemaldian?**

Euskal zineak toki oso garrantzitsua du Zinemaldian. Duela hiru urtetik "Zinemira" izeneko saila dago eta garai batean, egun bakarrean euskal zinearen emanaldia eskaintzen bazien ere, orain egunero izaten da emanaldia. Ekoizpen berriak batetik, eta bestetik, urtean zehar egindakoak ikusteko aukera izaten da. Ikusle guztiei zabalik dago eta horrek,



Amaia Etxetxipia  
Nutrizio aholkularia

## Koxk! Jateko gogo

Zenbait ikerketek ondorengo azalpena ematen dute: nahiago ditugun elikagaiak hartzean, gorputzeko  $\beta$ -endorfina izeneko sustantzia batzuk askatzen omen dira eta hauek, gure umorea hobetzen dute. Hala ere, janari bat erakargarria izateko, propietate organoleptikoez gain, bestelako faktore batzuek ere erlazio zuzena izaten dute; esaterako, gosea, elikagai horrekin aurretik izan ditugun esperientziak eta jateko orduan inguratzen gaituen egoera soziala. Beste modu batera esanda, ondo sentiarazten gaituena ondorengo izan daiteke: elikagai egokia jatea, momentu egokian eta konpainia onean, ezta?

Elikagaien aukeraketa, giza portaera konplexua da eta faktore askoren eragina izaten du. Jateko orduan, gosetze edo asetze sententzioek dute eragin zuzena, noski. Baina janariak aukeratzeko or-

duan, behar nutrizional eta fisiologikoez gain, badira beste zenbait faktore egoera honetan eragina izango dutenak, ondorengoak izan daitezke:

- elikagaien zaporea, usaia edo itxura.
- faktore kognitiboak, emozionalak eta sozialak (gustukoa dena eta gustukoa ez dena, osasuna eta dietarekiko dugun jarrera eta gaiaz dugun informazioa edota inguru soziala eta ohiturak). Hauek guztiek baldintzatzen dute jateko orduan egingo dugun elikagaien aukeraketa. Baita balio pertsonalak ere, ezinbesteko egoerak (adibidez, bakarrik edo konpainian bizitzea) janariak prestatzeko orduan dugun trebetasuna eta baita gure bizitza edo gure gorputza ulertzeko modua ere.
- faktore ekonomiko, kultural eta erlijiosoen ere gure


Uda amaitzen ari da eta honekin batera pertsona askoren oporrak ere bai. Oporretan maiz atsegin duguna egitea bilatzen dugu eta bizitzan dauden atseginen artean jatea ere aurkitzen da (askorentzat behintzat). Honela, aukera dugunean gustuko ditugun elikagaiak hartzen ditugu eta gustukoak ez ditugunak ekiditen ditugu. Gustuko elikagaiak jateak, alaiago eta lasaiago sentiarazten gaitu.

aukeraketa mugatzen dute. Gure heziketak edo produktuen prezioak ere erabakigarriak izan daitezke aukeraketa bat egiteko momentuan.

Gogoia ere aparteko kontua izaten da. Ezaguna egiten al zaizue kontrola ezinezko jateko gogo berezi eta konkretu hori? Oso ohikoa da, ez soilik haurdun dauden emakumeen artean gainera. Ikerketa desberdinak egin dira eta jasotakoaren arabera, gizonezkoek eta emakumezkoek jateko gogoia jarrera eta emozio desberdinekin erlazionatzen dute. Orokorrean, gizonezkoek, gogoia gosearen ondorioz sortzen dela pentsatzen omen dute, eta emakumezkoek ordea, gogo-aldarte negatibo batekin erlazionatzen dute (estresatuta edo aspertuta egotearekin kasu). Ez hori bakarrik, emakumezkoek gehiagotan jasaten omen dute sentimendu negatiboak

desiratutako janaria hartu ondoren (adibidez, kulpa edo alhadura). Zenbait psikologoek ustetan, arrazoi desberdinen artean, ondorengo aurkitu daiteke: gogokoa izan den janari hori "debeakututa dugun janari bat izatea".

Egoera honen aurrean, ondorengo aholkuak ematen dizkigute adituek. Garrantzitsuenak, janariarekin erlazionatuta ditugun errudun-sentimendu horietaz ahaztea omen da. Horretarako, ezinbestekoa dirudi janariarekin erlazio osasuntsua mantentzea eta janari-ohitura errealistak batzuk izatea. Beste era batera esanda, gustukoak ditugun jakiak neurritz hartzen lortzea eta ikastea. Honela gehiegikerietan erori gabe gure gozamenak handitu egingo da.



# Galtzakomik laugarrengoz Tolosaldea euskal komikigintzaren erreferente bilakatuz

Galtzaundi Euskara Taldeak Ibarra-ko Udalarekin batera urtero antolaturiko komiki lehiaketan parte hartzeko deialdia dagoeneko zabalik dago. Euskal komikilariek, artistek, ilustratzaileek, diseinatzaile grafikoek, azken finean, istorio sortzaileek Galtzakomik komiki lehiaketa euren lanak aurkezteko plaza izango dute urtero legez.

Naiara Roldán de Aránguiz

"Marrazki-ipuina, irudi-ipuina edo marrazki-istorioa ikusteko artearen mota bat da, irudiak eta testuak nahasten dituen eta karikatura edo irrimarraren teknika baliatzen dena." Hona-koa hiztegiek komikiaz ematen duten definizioa. Galtzaundi ordea Galtzakomik lehiaketaren bitartez esanahi honen interpretazioa parte hartzaileen esku uzten du. Bete beharreko baldintza bakarra ordea, agerturiko testua euskaraz izatearena.

Joseba Antxustegiartek komikilaria-, Juanba Berasategik marrazki bizidunen marrazkilaria-, Iñaki Martiarenak "Mattin" -Berriako komikilaria-, Iñaki Epeldek -To-

losako margolaria-, Jose Luis Longaronek -Tolosako margolaria- eta Kike Amonarrizek -aurkezlea eta komikizalea- osaturiko epaimahaiaren hautespena gailenduta sari potoloak eskuratzeko aukera izango dute parte hartzaileek.

Lehiaketa hiru kategoriatan banatuta dago eta aipatu sariak ere maila horien arabera izango dira. 12 urtetik beherako irabazleek komiki bilduma eta marrazketarako materiala eskuratu dute. 12 eta 18 urte bitarteko saridunak 400 euro poltsikoratuko ditu eta bigarren sailkatuak ordea 200 euro. Lehen mailan lehiatuko diren 18 urtetik gorako neska-mutil

eta gizon-emakumeek 400 eta 600 euro eta komiki sarituaren argitalpena irabazteko aukera izango dute. Hala ere, kontutan hartzekoa da egile bakoitzak sari bakarra eskuratzeko aukera izango duela eta epaimahaiaren ustez lanek eskatutako kalitatea eskuratu ezean sariak eman gabe utziko direla.

## Oinarriak

Lanak ondoren zehaztutako oinarrien arabera Galtzaundi Euskara Taldean (Nafarroa etorbidea, 6 behea. 20400 Tolosa) aurkeztu beharko dira "Ibarra Galtzakomik komiki lehiaketa" erreferentzia zehaztuz irailaren 19tik azaroaren 18ra bitartean.

Komikien gaia librea izango da, baina antolakuntzak eduki bortitz, sexista edo arrazista duen komikirik eta dena delako arloan intolerantziatzeko jokabiderik eragin dezakeenik ez du onartuko. Pertsonaia guztiak jatorrizkoak eta argitaragabeak izan beharko dute, autoreak berak sortutakoak eta euskara hutsean garatutakoak.

Lanak aurkezteko garaian kontutan hartu beharko da lan bakoitzak gehienez A-4 neurriko lau orri izango dituela, eta formatu bertikalean diseinatu beharko dela. Orri bakoitzeko inpresio bat aurkeztu beharko da, A-4 neurrikoa eta gutxienez 300 ppp-ko kalitatekoa ordenagailu bidez tratatuak diren kasuetan.

Komikiak entregatzeko orduan autorearen izenik ez agertzea eskatzen du Galtzakomik lehiaketako antolakuntzak. Hau da, lanak gutun-azal batean aurkeztuko dira sinadura eta izenik gabe, izenburu batekin. Autorearen datuak -izena, telefono zenbakia, lanbidea, adina, helbidea, helbide elektronikoa eta komikiaren izena-ordea izenburu beradun bestelako gutun azalean aurkeztuko dira, lehenengoaren barruan.

## Lehiaketa baino gehiago

Arte adierazpen honen lehen aztarnak Europar XV. mendean aurkitu baziren ere gaur egun gurean jarraitzaile ugari ditu; Patxi Gallego, Asisko Urmeneta,



Dani Fano, Andoni Salegi euskal komikigintzan erreferentziarako izen ospetsu bilakatu diren batzuk baino ez dira.

Izen hauetariko batzuentzat ordea Galtzakomik ez da arrotza; esaterako, iazko edizioan Asisko Urmenetak eta Dani Fanok parte hartze berezia izan zuten. Galtzakomik delako afari-txouean Iñaki Apalategi eta Bixente Gorostidi bertsolariekin batera euskara, komikia eta umorea uztartzeko luxuzko afaria eskaini zuten; komikilariek bertatik bertara lanean ikusteko aukera izan zuten parte hartzaileek. Gauzak honela, aurtengo edizioak ere sorpresa bat baino gehiago eskainiko du, horren berri izateko Galtzakomik-ek facebook-en duen orrialdea eta Galtzaundi aldizkari eta webgunea lehiaketa eta inguruko ekitaldi ezberdinen gida bihurtuko dira.

Bestetik, "Ibarra Galtzakomik" lehiaketan saritutako eta aurkeztutako lan guztiak erakusketa osatuko dute abenduan zehar. Galtzakomik erakusketa lehiaketa-

tako sari banaketa ospatzearekin batera inauguratuko da Ibarra-ko Benito Izagirre Kultur Etxean abenduaren 16an, arratsaldeko 19.30ean.

2011ko edizioak beraz komikiaren inguruan ekitaldi ezberdinak aurkeztuko ditu; afariak, tailerrak, aurkezpenak... Kontuak kontu, lehiaketaren baitan antolatutako ekintza guztien berri izateko garaian garaioko informazioa zabalduko du antolakuntzak.

Azken ediziotan, urtetik urtera, parte hartzaile kopuruak gora egin du. Hala ere, 2011ko datua ezagutu ahal izateko azaroaren 18a arte zain geratu beharko dira bai antolakuntza eta baita parte hartzaileak ere. Iazko ehuneko kopurua gailenduko ote?

Lehiaketaren inguruan datu gehiago eskuratu nahi izanez gero Galtzaundi Euskara Taldearekin harremanetan jarri beharra dago: 943 655004 telefono zenbakia edo kultura@galtzaundi.com helbide elektronikoa bidez.

Errotulazioa & inudia  
**Vicente**  
www.rotulosvicente.com  
943 69 02 94  
taller@rotulosvicente.com  
Laskar balara 25, 1-04 atea  
20271, Iruia (Gipuzkoa)

**Saldias Miguel**  
CORREDURIA DE SEGUROS  
ASEGURUETAKO ARTEKARITZA  
N. D.G.S. J.1759  
Bizi-asegurua  
Kotxe-asegurua  
Istripuak  
Gaisotasunak  
Ospitalizazioak  
Subsidioak  
Lan-istripuak  
Enpresa txiki eta ertainak  
Erantzukizun zibila  
Etxe-asegurua  
Denda-asegurua  
Erretiroak  
Inbertsio fondoak  
SALDIAS MIGUEL - Nafarroa Etorbidea, 12-behea  
Tel.: 943 651 189 - 943 653 462  
Faxa: 943 653 462 - 20400 Tolosa (Gipuzkoa)  
www.saldias-miguel.com

01001001  
00111100  
00111100  
00111100  
**Tolosa Bit**  
Informatika Zerbitzuak  
Oinarritutako eta konpostatu  
Eguzkia eta partikularren  
Mantentzeak  
Oria kalea, 14-behea  
Tolosa - Tel.: 943 676 156  
Faxa: 943 016 857  
tolosabit@facilnet.net  
www.tolosabit.es

## irakurri entzun Ikusi

Zer barkaturik ez  
Alberto Ladron Arana


Bolada txarra darama Mikel Izuk: andreak utzi zuen, lanean ez da agertzen depresioagatik, bere anaia Julenen alpro-jakeriak jasan behar ditu... Hain zuzen, anaieren etxean behatz moztu eta odoldu bat aurkitzen duenean hasiko dira gauzak are gehiago okertzen eta aldrebesten.



20

Starting!  
RS Faktor

Beste musikari gazte askok bezala, Ruben Salvadorrek eta bere taldekideek ez dute inon kokatu nahi beren musika, eta konplexurik gabe egiten diete keinu era askotako genero, estilo, tinbre eta erritmoei. RS Faktor da taldea eta Starting! argitaratutako diskoa.



Arriya  
Alberto J. Gorritiberearen

Zestoan, Zumaian eta Gipuzkoako beste herri batzuetan filmatutako pelikula. Malagako Zine Jaialdian sarituta. Sentimendu istorioa, tradizioaren eta pertsonen arteko borroka eta tartean apustua. Tradizioak, amodioa eta familien arteko borrokek harapatuta bizi diren hiru gazte maiteminduren istorioa kontatzen du Arriyak.



# Irailaren 2tik 16ra bitarteko hitzordueak

## Azoka

**XIII Garagardo Festa.** Tolosako Zerkausan. Irailak 15-18. Garagardo dastaketa eta kultur ekitaldiak.

## Jaiak

**Herriko festak. Elduain.** Ama birjina festak. Irailak 8-11. **8, osteguna:** suziariak jaiet hasiera emateko, meza nagusia, hamaiketako, antzerkia herriko txikien eskutik: "Udako testuan galduta", Poxpolo eta Konpainia "Segi jotzen", Ingo al deu musika taldea. **9, ostirala:** meza nagusia, haurrentzako puzgarriak, herri bazkaria, bertso-triki-poteoa Unai Muñoa, Bixente Gorostidi eta Niko, Txaranga Mukaki, Gose taldearen kontzertua, Disko festa eta DJ Bull. **10, larunbata:** zaldi gainean edota gurdian ibilaldiak herrian zehar, toka, patata tortilla dastaketa, emakumeen arteko herri kirolak, Egurra ta Kitto, Habeas Corpus, Disko Festa eta DJ Bull. **11, igandea:** meza nagusia, hamaiketako, pilota partiduak herriko pilotarien eskutik, kale antzerkia Trapu Zaharra taldearen eskutik: "Gira eta Gira" antzezlan eta jaiet amaiera emateko Gorriti eta bere animaliak.

**Herriko festak. Lizartza.** Irailak 7-11. **7, asteazkena:** kalejira, txupinazoa, haurrentzako danborrada, zagiardoa eta

pintxoak. **8, osteguna:** diana Lizardi txistulari taldearekin, hamaiketako Sorozabal eta Mendiluze bertsoariarekin, helduentzako bazkaria, haurrentzako antzerkia "Bazen behin clown" taldearekin, dantza soka, herri afaria, danborrada



isk&bila txarangarekin eta Un-sain anaiak. **9, ostirala:** diana Karobitxulo taldearekin, tortilla lehiaketa eta toka txapelketa herrikoia, txokolatada, haurrentzako puzgarriak, Otsolar dantza taldea, kantaldia Ane Badiola, Irati Odriozola eta Joxe Leon Amigorenarekin eta **10, larunbata:** diana Lizardi taldearekin, herriko gazteen arteko pelota partidak, herri bazkaria, haurrentzako puzgarriak, sagardo dastaketa, Gabezin musika taldea, su artifzialak, presoen

aldeko kalejira eta Gabezin eta Laket musika taldeak. **11, igandea:** diana Lizartzako gaiteroekin, zesta punta, poteoa herriko gaiteroekin, txirindularitza erakustaldia, herri kirolak eta trikitilariak.

**Herriko festak. Alkiza.** Zaindariaren jaiak. Irailak 8, osteguna **Santo Kristo ospakizuna.** Alegia. Irailak 14, asteazkena **Gazte festak. Hernialde**

Bizi-nahi jubilatuta eta pentsiodunen elkarteko jaiak. Irailak 15-18. Ibarra

**Izaskun auzoko festak.** Irailak 2-4, ostiraletik igandera bitartean. **Irailaren 2an,** txupinazoa, txokolatada, buruhandiak, triki-poteoa Albizturaren eskutik, danborrada afaria, danborrada Bonberenea txarangarekin eta kontzertua Sputnik 11 diskaren zuzeneko aurkezpena (Switch, Indekitxen, Glaukoma Sound System, Dolce Tangana). **Irailaren 3an,** umeentzako gosaria, haur jolasak, batel desafioa, auzo bazkaria txarangarekin, sagardo dastaketa pintxoekin, zahagi ardoa, Zea Mays, Gose eta Fiachras kontzertua. **Irailaren 4an,** Tolosako Txistulari bandarekin diana, toka txapelketa, zahagi ardoa eta Izaskun auzoko mus txapelketa.

## Liburuak

**Udako liburutegia.** Irailaren 24a arte. 15.00-19.00 bitar-

tean. Tolosako Usabalgo solariumean. Irakurketa: Helduentzako egunkariak, aldizkariak, komikiak, eleberririk laburrak, turismoko gidaliburuak, sukaldaritzari buruzko liburuak eta haurrentzako aldizkariak, ipuinak, komikiak, jolas liburuak...

## Antzerkia

**Pikor Antzerki Taldea.** Irailaren 2an, 20.00etan. Tolosako Euskal Herria plazan. Gau Giro ekimenaren baitan. 'Atsoak dantzan' antzezlan. Bi atso aingerutiak kalez kale dabil-tza euren aulkietan. Galduta daude dirudi, baina, ez da hori benetan gertatzen ari dena: zaharren etxetik ihes egin dute eta euren begiraleak atzetik dituzte. Dena den, beraiek erabakia hartu dute: ez dira berriro bazter batean utzitako traste zahar bat izango, oraindik ere promesa eta amets ugari dute gauzatzeko. Tartean itsasoa ikusi ahal izatea.

## Erakusketak

**Menchu Gal:** 'Kolorearen poza' margo erakusketa. Irailaren 10a bitartean. Tolosako Aranburu Jauregian. Irailak 8, osteguna. 19.00. Bisitaldi gidatuta Edorta Kortadi komisarioak gidatuta. **Jeiki-jeiki.** Irailaren 10a bitartean. Tolosako Aranburu Jauregian.

## Tolosaldean (IKASTN)

Bizitza osoan zeharreko ikaskuntza

2010-2011 Ikastn ikasturteak emaitza oso onak utzi ditu, horien adibide hurrengoak: >500 pertsona webgunean erregistratuta (doako sms eta buletin elektronikoko zerbitzua), >1.100 albiste argitaratuta (eskualdeko ekintzak, irteerak, jardunaldiak...), >600 lotura BOZirekin erlazionatuta, >11.000 bisita webgunean, >52.000 ikusitako orriak (68% bisita berri), >275 prestakuntza entitate erregistratuta, >630 ikastaro ikastn webgunean (Tolosaldeko eskaintza arautua, ez arautua eta informala) eta >600 informazio-eskaera.

Zerbitzuko erabiltzaileen profilari dagokionez %40 gizonetakoak eta %60 emakumetakoak izan dira. Adin tarteari erreparatur gero hurrengoak dira eskuratutako portzentajeak: [16-32] %44, [33-49] %30, [50-66] %20, [>67-...] %6. Lan egoerari dagokionean %36an langileak, %50ean langabetuak eta %14an pertsona jubilatutakoak eta etxeko andreak parte hartu dute. Eskatutako prestakuntza mota %54an formazio arautua eta %46an formazio ez arautua eta informala. Gehien eskatutako ikasketak ondorengoak

izan dira 2010-2011 ikasturtean: Lanbide Heziketa (Goi mailako Ziklo Formatiborako Sarbide Froga, Gaitasunen Errekonozimenduaren Dispositiboak, Titulazio katalogoa...), ikastaroak eta mintegiak, unibertsitate-ikasketak, masterrak, graduondokoak eta doktoretza, oposaketak eta DBH eta Baxilergoko Graduatua. Gai eta espezialitatei erreparatur gero informatika, gizarte zientziak (psikologia, nazioarteko erlazioak, antropologia, enpresen kudeaketa...), ostalaritza (sukalde laguntzailea, elikagaien manipulatuak txartela...), mekanika, elektrizitatea eta elektronika eta gizarte, kultur eta komunitate zerbitzuak (haur hezkuntza, arreta sozio-sanitarioa, integrazio soziala...) izan dira.

Honakoak 2010-2011 ikasturteak Ikastn zerbitzuak eskainitako datuak bere V. urteurrena ospatzearekin batera. Baina, etenik ez eta 2011-2012 ikasturte berriari irailaren ekingo dio Tolosaldea Ikastnek, zerbitzuak atek zabaliak izango ditu formazio berri ere eskualdeko pertsona orori eskainiz.

## Goardiako farmaziak

<b>Ostirala, 2</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Asteazkena, 7</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa	<b>Astelehena, 12</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa
<b>Larunbata, 3</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Osteguna, 8</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa	<b>Asteartea, 13</b> Azpiroz L. (Amaroz 9) Tolosa
<b>Igandea, 4</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa	<b>Ostirala, 9</b> Iturrioz I. (Euskal Herria, 3) Ibarra	<b>Asteazkena, 14</b> Echeveste Jesus M. (Gernikako arbola, 3) Tolosa
<b>Astelehena, 5</b> Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	<b>Larunbata, 10</b> Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	<b>Osteguna, 15</b> Bengoetxea E. (Nagusia, 7) Tolosa
<b>Asteartea, 6</b> Olarreaga M. (Martin J. Iraola, 10) Tolosa	<b>Igandea, 11</b> Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	<b>Ostirala, 16</b> Bronte C. (Korreo, 20) Tolosa

## Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketak-Albaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola, hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	Amarozko dispensarioa	943 672 637
Altzo	Asunzion klinika	943 675 799
Medikua	(larrialdiak)	943 675 390
Anoeta-Alkiza-Hernialde	San Kosme San Damian	
Medikua	geriatrikoa	943 672 932
Baliarrain	Udaltzaingoa	943 675 858
Medikua	Ur eta Argia (Tolargi)	943 650 016
	Ur zerbitzuak (aberiak)	639 352 156
Berastegi-Elduain	lurremendi egoitza	943 670 325
Medikua	Larrialdiak, Suhiltzaileak	112
Bidegoian	DYA	943 672 536
Medikua	Gurutze Gorria	943 674 888
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu		943 651 425
Osasun etxea	943 672 411	943 673 022
Ikaztegieta	943 653 329	943 675 320
Medikua		
Irura	943 690 720	943 682 077
Osasun zentroa		
Tolosa		
Anbulatorioa, larriald.	943 650 931	943 655 595
San Esteban, hitzordua	943 006 800	943 682 228

jarri zure  
publizitatea  
**Galtzaundi**  
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6  
20400 Tolosa  
publizitatea@galtzaundi.com  
943 655 004  
www.galtzaundi.com



**SANTA  
LUZIA  
GARAJEA**

Grua zerbitzua  
24 orduetan

943 653 491  
943 653 874  
943 653 985  
943 806 020  
Santa Luzia, 1-TOLOSA



• **Gortinak**  
• **Edredoi nordikoak**  
• **Mantak**  
(bat erosita beste bat opari)  
• **Ohazalak**  
• **Alfonbrak etab.**

**Donostia**  
San Martin, 16  
943 425 886-943 420 187

**Donostia**  
Garibai, 8  
943 420 259-943 430 947

**Tolosa**  
Rondilla, 11  
943 670 615-943 671 149

## Muxutruk

### Lana

• Ordenagailuak konpondu eta eguneratzen ditut, datuen berreskurapenak merke eta etxerako zerbitzua. 644 453 621

• Ingeleseko klaseak bakarka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664.16.02.68

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hertz-protesiko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

### Etxebizitza

• 60m<sup>2</sup>-ko pisua salgai Berazubín. Egongela handia, bi logela, sukaldea eta komuna. Berritua, berogailua, sartzeko prest. 616 278 843

• Orion pisu/apartamentua salgai, garaje eta guzti, zentruan. Hondartzatik 10 minutura. Harremanetarako telefonoa: 661304125

• Bikote euskalduna baserri edo borda batean alokairuan jartzeko prest. 652 715 800

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m<sup>2</sup> eta erreforma egiteko. 620 129 295

### Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Aritz.

• Oruga karretila salgai. Honda HP 500, ia berria. 943.69.47.36 / 618.18.53.37

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldean, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro.- Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

# Horoskopoa

Irailaren 2tik 16ra arteko aurreikuspena



## aries

Martxoak 21-Apirilak 21  
Aurrera egiteko baldintzarik onenak dituzu, zure sorkuntza originaltasunez josia egongo da. Baliabide ugari dituzu eragozpenei aurre egiteko. Gauzak egin aurretik ondo pentsatzea gomendagarria izaten da.



## taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21  
Maitasun kontuek bizitza sozialak baino garrantzi gehiago hartuko dute. Erosotasunaren eta bizitza onaren maitale bilakatu zara. Ez diozu garrantzi gehiegirik ematen zure izaera jeloskorrari, maitale kontuak indulgentziaz aztertzen baitituzu.



## gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21  
Egoera ez da erabat argitu eta oraindik zailtasunak agertzeko aukera dago, hala ere bidea hartzeko indarrez zabilta. Ideia berrien bitartez zure ingurukoak txundituta utziko dituzu.



## cancer

Ekainak 22-Uztailak 22  
Familia artean banaketa bat emango da eta horrek bere eragina izango du zuregan. Babesik gabe sentituko zara garai honetan. Osasun alorrean ere zenbait zailtasun azalduko zaizu.



## leo

Uztailak 23-Abuztuak 22  
Eragin ezkorrak darabilkizu inguruan azken aldian, hauek zalantzan jarriko dituzte orain arte eskuratutako lorpenak. Erabaki bakarrak aurretik egindako lan guztia deusezta dezake.



## virgo

Abuztuak 23-Irailak 22  
Erlazioak behaketan oinarritzen dira, zure bikoteak atentzio gehiago eskatzen dizu. Zure sentimenduak agerian uzten dituzunean benetako erlazioa azaleratzen da.



## libra

Irailak 23-Urriak 22  
Eraikuntzak diru-sarrerera berriak eskainiko dizkizu, lanpostuetan gora egitea ahalbidetuko dizu. Hala ere, espekulatzea ez zaizula burutik pasa! Lurrarekin harremana duen lan batek emankortasuna suposatuko du.



## scorpio

Urriak 23-Azaroak 22  
Familia kontuekin obsesionaturik zaude azken aldian, hori dela eta zure sentimenduak xantaia gisara erabiliak izateko aukera dago. Honetaz gain zirkulazio arazoak ere azalduko dira.



## sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21  
Aukerez baliatzeko erabakitasuna falta zaizu. Espero ez dituzun zailtasunak azalduko dira. Zortearengan konfiantza gehiegi izaten ohituta zaude, baina hau erantzukizunak ekiditeko modua baino ez da.



## capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20  
Familia sortzeko beharra irudimezko segurtasun emozionalaren malenkoniarekin zerikusia du. Egonkortasunak konfiantza hartzeko parada ematen dizu baina baita ilusioez ikasteko aukera ere.



## aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20  
Lidergoa zurea da baina kontrako kolumniak ere jasan behar izango dituzu. Lanean egoerak hobera egin du baina hala ere zuhur jokatzeko gomendagarria da. Zenbait egoerek zailtasunetan murgiltzeko aukera ematen dute.



## piscis

Otsailak 21-Martxoak 20  
Familiarekin argudiotan hasteko arazoa aurkeztuko da. Aldaketei era koherente batean aurre egiteko prest egon beharko zenuke. Zure eskuabaltasuna eskatzen dizutenei zuzendurik dago.



Komikia: Joseba Antxustegietxarte

MAILA GUZTIAK  
AURREZ AURREKO TALDEAK  
AUTOIKASKUNTZA  
TITULU HOMOLOGATUAK

Aitzol  
Udal  
Euskaltegia

Irailaren 16 arte  
bulego ordutegia  
09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00



Rondilla 34-B, 3.a  
20400 TOLOSA

tel. 943651006 - 943652343

www.udaleuskaltegiak.net

aitzolue@tolosakoudala.net

# Gertu...

V I L L A B O N A K O  
H I L E T A Z E R B I T Z U A K  
B E I L A T O K I eta S U L A B E A

# 24 H..

943 694 873

